



Uzturre azpiko telegrafo optikoa eraberritu dute

TOLOSA ▶ Uztaileko bi astetan aritu dira auzolanean Tolosaldeko eta Donostialdeko hamahiru gazte ▶ 2



Ingurua txukunduta, horrelako itxura zuen atzo Uzturre azpiko antzinako telegrafo optikoak. E. EZEIZA



N. URBIZU

Altzotarrek ere gogotsu ekin diete herriko festei

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Besteak beste, gaztetxoek dantza saioa izan zen atzo; beste hainbat herritan, abuztuko jaien zain ▶ 6-7

ANOETA ▶

Elutsa atsedenlekua inauguratu dute

Bizikleta itxura du,
Olanoren omenez ▶ 7



J. ASTIBIA

VILLABONA ▶

Koadrilek girotu dute festa eguna

Gaur, besteak beste,
jubilatuen bazkaria
eta Euskal Jaia ▶ 4



Hainbat lagun koadrila, Etxe-Ondon, atzo. I. GARCIA

GIZARTEA ▶

Hamar egun eta gero, beste itxura bat du telegrafoak

Uztailean bi astetan zehar, Tolosaldeko eta Donostialdeko hamahiru gazte aritu dira auzolandegian, Uzturre azpiko antzinako telegrafo optikoa txukuntzen



Horrela zegoen telegrafo dorrea lanean hasi zirenean. HITZA



Hamar egunetako lanaren ondoren, inguruak txukundu dituzte. E. E.

ESTI EZEIZA

Hamar egunetako lan gogorren ondoren aldaketa nabarmena jaso du Uzturreko telegrafo dorre zaharrak. Txukuntze lan horretan aritu dira Tolosaldeko eta Donostialdeko 13 gazte. Hala, azken ukituak ematen ari zirenean topatu ahal izan zituen HITZAK atzo.

Tolosako Ingurumen Sailak sustatuta, Kutxaren laguntzarekin, Uzturre mendi magalean kokatuta dagoen hondare historiko bat berreskuratzea zen helburua. Bestalde, egitasmo hau 750. urteurrenaren ospa-

kizunera batzen da, boluntarioritza sustatu, eta ingurumenarekiko jabego historikoarekiko ezagutza zabalteko helburuarekin. Alabaina, «13 eta 18 urte bitarteko gazte hauek egindako lanari esker, badakigu zein egoeratan dagoen dorrea, eta plano zehatzak egin ahal izango ditugu», adierazi zuen Juantxo Agirre Aranzadiko ordezkariak. «Eta orain dokumentazio lana hasiko da, diagnostiko bat eginez, arazak eta non dauden jakiteko».

Auzolandegiaren azken egunean, Juantxo Agirrek azaldu zuen bezala, dorre hau 1849.

urtean eraiki zuten, sareko telegrafoa asmatzeko zegoenena. Madril eta Irun bitartean honelako 52 torre aurkitzen ziren, eta denak ere toki estrate-

gikoetan kokatuta zeuden. Horralako tresnei telegrafo optiko deitzen zaie, batetik bestera elkar ikus daitezkeelarik. Komunikabide hauek zifratutako sei-

naleak bidaltzen zituzten, eta bertan, zenbait soldadu egoten ziren hau zaintzeko. Izan ere, sistema honek xede militarra zuen, garai haietan, botere-tsuek bakarrik baitzuten komunikabideak erabiltzeko eskumena.

Neoklasiko garaiko eraikina da; horren adibide dira fatxada guztiak berdintsuak izatea eta solairu guztiak ongi ezberdinduta egotea. Bestetik, nabaria da sistema eta eraikin oso landua dela, sarbidea ere ongi babestuta baitu.

Nahiz eta lanak ia amaituta egon, irailean berriro itzuliko dira Aranzadikoak. Bost egunetan zehar, zonalde batzuk sendotzeko. Azken batean, «udaleku hauen azken helburua harrizko dorrearen ikerketa arkeologiko bat egitea zen».

Lehen aipatu bezala, egitasmo honetan Kutxa izan da laguntzaile nagusi. Honek, urtero, gazteentzako lan eta praktika zerbitzuak antolatzen ditu. Bere helburua udan aisirako beste aukera batzuk proposatzea da.

Egun hauen ondoren, eta gaztetxoek egindako lanaren oradainetan, sari gisa, Pirinioetara joateko aukera izango dute abuztuan. Txangoa Edurne Pasaban alpinista tolosarrak zuzenduko du, eta astebe-tez, natur parkeak ezagutzeko, mendiak igotzeko nahiz arrisku kirolak egiteko aukera izango dute.

AISIA ▶



Uztailarekin batera, joan dira ludotekak

Erredakzioa ▶ Uztaila osoan zehar, jolasean, txangoak eginez, festan ibili ondoren amaitu da Laskorain Ikastolako Udaleku Irekia edo ludoteka. Giro polito eman diote amaiera, gainera, aurtengo egitarauari, haurrentzakoaren ondoren gurasoei eskainitako dantzak izan dira ikusgai ikastolako patioan: piratak, turistak, pailazoak... Eta datorren urtean, gehiago. HITZA

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Ibarra. 90 m2ko etxebizitza salgai. Berritua izan ondoren estreinatzeko. 3 gela, sukaldea, bi bainugela, egongela, 20 m2ko terraza, 25 m2ko txokoa. Inmoeki: 675 70 52 68. **Tolosa.** La Estrella. 93 m2ko

etxebizitza ederra. Hiru logela, sukaldea eta bainugela hornitua ditu. Egongela kanpoaldera. Garajea aukeran du. Inmoeki: 675 70 52 68.

LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko,

Tolosaldean. Eskarmentatua. Interesatek deitu 635 74 52 91 [zenbakira.](#)

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. Interesatuak deitu dezatela 677 32 99 34 [zenbakira.](#)

ZABALA DESGUAZEA

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347
Beotibar Induristegunea, 18 • BELAUNTZA

Nahikidekio

Tel.: 943 69 64 84
Faxa: 943 69 33 59
Larrea auzoa, 8
20150 BILLABONA

Gora
Santioak!

JANARIDENDA PILAR

Larrea, 9 • Villabona
Tel.: 675 713637

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Gure menderakuntzaren 750. urteurrena ospatu?

Orain dela 750 urte, Gaztelako Erreinuak eraso, konkistatu eta zatitu zuen euskaldunek antolatutako Estatuak, Nafarroako Erresuma. Eta urteurren hori baliatu behar dugu Euskal Herriaren historiaren espainiarrek inposatu diguten bertsioko neutralizatzeko, Euskal Herriaren aurka erabili ez dadin, eta euskaldunen ikuspegia zabalatzeko. Ulertzekoa da EAren egitasmoak, alderdi espainiarrena eta ezker abertzalearenak bat ez etortzea, baina askoz interesgarriago da oroiimen historikoaren berreskurapena bultzatzea Euskal Herriaren eskubideen ikuspuntutik. Jarrera honek ez du 750. urteurrenaren boikota bilatzen, ikuspegia egokitzea deontzat, Euskal Herri osoan izan ditzagun. Oroimen historikoa berreskuratzeko ekimenak, ezinbestean, Euskal Herriaren askatasunarekin eta demokraziarekin lotu behar dira.

Euskaldunak eta Euskal Herria historia aurretik gaude Pirinioen bi aldetan eta, gaur egun ere, hemen bizi gara. Euskal azarnak, Kristo aurreko 40.000 urtetan agertzen dira, euskararenak duela 10.000 urte inguru edo, eta lehen euskal unitate politikoa Kristo ondorengo VIII. mendean, Iruñeko Erresuma hasieran eta Nafarroako Erresuma izenarekin geroago. Nafarroako Estatuaren independentzia erabatekoa da IX.-XVI. mendeen artean. Bere erakundeak, ordea, XIX. mendera arte iraun zuten; Espainiak deusestatu zituen arte, bi gerra karlisten ondoren. Frantziak ere, XVII. mendean, Nafarroa independentea eta Zuberoa anexionatzen zituen ediktua atera zuen eta XVIII. mendearen bukaeran, Frantziako asanbalada nazionalak Nafarroa, Lapurdi eta Zuberoako erakundeak deusestatu zituen. Nafarroako Euskal Estatuak, beraz, XI mendetan zehar iraun du Euskal Herrian. Hori datu objektiboa da. Alabaina, batzuentzat Euskal Herriaren historia XIX. mendean hasten da, beste batzuentzat XVI. mendean, eta badirudi «750. urteurrenaren eraso eta konkista» ospatzen ari direnentzat 1256 urtean hasi zela.

Garai hartan, ordea, Gaztelaren konkista aurretik eta «hiri gutun» bidez herri berria eraiki aurretik, Tolosan baziren euskal auzuneak eskualde naturalan antolatuta. Konkista aurreko jatorrizko biztanleek bazituzten beraiek beraiantzat egindako legeak, ohiturak lege bihurtuta, lege horri foru zaharra deritzo.

Europako lehen ohiturako zuzenbidea izan litekeena; Pirinio-tako zuzenbidean oinarritua. «Hiri gutun» bidez eraiki berriak ziren herriek lege berriak zituzten, kanpoko erregeak emandakoak, bere merkataritza eta defentsa interesen alde eginak eta lege horiei foru berria derizte. Baina oso kontrajarririk ziren aurreko mendeetatik bertakoeke zituztenekin. Beraz, liskar eta gatazkak ohikoak ziren.

1256ean, aipatutako herri harreridun berri hauek eraikitze-rakoan Gaztelak zuen helburua itsasora bidea irekitzea zen, berak ugari zeukan artilea Europa eraman eta saldu ahal izateko, baina horretarako Nafarroa Erresumako lurraldeak

konkistatu behar zituen aurretik. Nafarroako Erresumako mugak aldarazi, sendotu eta inposatu zituen indarrez konkistatzaileak. Gaztelako mugatik hasi eta Gasteiz, Kanpezu, Agurain, Segura, Ordizia, Tolosa, Hernani eta Pasaia-Hondarribiraino harresidun herriak eraikitza, —muga berri horrek, 1321ean, euskaldunen arteko Beotibarko gudua eragin zuen eta, hurrengo bi mendeetan, «gaizkileen muga» izan zen—, Nafarroako Erresumaren eremua bi puska egin zituen. Ez da egia, historiografia espainiarrek dioen bezala, orain dela 750 urteko gertakari hura. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako «borondatezko ematea» izan zenik, konkista eta kolonizazio hutsa egin zen. Nafarroako Estatuaren lurralde ziren horiek, Gaztelako armadaren esku erori ziren eta Euskal Herriak jasan duen eraso historikorik bortitzenetakoa izan da.

Espainiako Gorteek eta Frantziako Asanblada Nazionalak Nafarroaren independentzia ukatu, lurraldea zatitu eta erakundeak deusestatu zituzten Euskal Herriaren etorkizunaren zorigaiztorako. Eraso, eskubi-

deen ukazio eta zatiketa horien ondorenak, gaur egun bizi dugun gatazka politikoaren oinarri-oinarrian daude. Horregatik diogu konponbiderako Euskal Herriaren lurraldetasuna eta euskal herritarren hitza eta erabakia aitoritzea ezinbestekoa dela, gure nazioaren eskubideak direlako.

750. urteurren hori dela eta, beraz, ez dugu ezer ospatzeko-rik. Nola ospa daiteke ba, norbere herriaren konkista, okupazioa eta lurralde zatiketa atzerriko erasotzaileengatik? Badugu, hala ere, zer gogoratzeko-rik; eskubideen zapalketa eta indarkeriazko historia hori berriro gerta ez dakigun. Bate-tik, kanpoko konkistatzaileen eta bertako laguntzaileen hainbeste eraso, maltzurkeria, konkista, saldukeria, asimilazio eta genozidio saiakeraren gainetik, Euskal Herria bizirik dela eta, bestetik, baldintza berriak sortzen ari garela gure nazioa bizi dadin justizia sozialaren bidetik, aske eta euskaldun. Hori da guk ospatzeko dugun arrazoi bakarra.

INAXIO AGIRRE ▶

 AUB-KO GIPUZKOAKO ORDEZKARIA
 (TOLOSA)

HEGATS IGERIKETA ▶

Sei domina IKTrentzat

Varelak, Molinak eta Karrerak eskuratu dituzte Espainiako Txapelketan

ERREDAKZIOA

Tolosako IKT Hegats Igeriketa taldeak Espainiako Txapelketan jardun du, Sevillan. Guztira sei domina ekarri dituzte etxera eta taldeko arduradunak «oso pozik» azaldu dira emaitzekin. Mara Varela izan zen sa-

rituena taldean, urrezko bi domina lortu zituelarik, 50 metro ur azpikoan eta 100 metro eskafandran. Zilarezkoa, berriz, 100 urgainekoan, hain zuzen.

Gorka Molinak eta Nere Karrerak brontzezko dominak lortu zituzten; lehenengoak bi, 50 metro eta 100 metro ur azpi-



Mara Varela fin aritu zen eta bi urrezko domina erdietsi zituen. HITZA

koan eta, bigarrenak bakarra, 100 ur azpiko proban. Molinak zazpi zentesimengatik ez zuen urrezko domina irabazi.

Talde guztiak «maila altua» erakutsi zuen, Irati Larrañaga kadetearengatik hasita, Ibai Luque, Iker Varela, Marta Gaztañaga eta Ainhoa Tolosa gazteekin jarraituz, eta Patxi Monge, Ibai Orruño eta Gregorio Mancisidor beteteranoekin bukatuz, guztiak ere Jon Espina entrenatzailearen agindupean. Azkeneko hauek, gainera, Gorka Molinarekin batera, 4x100 metroko proban seigarren postua lortu zuten.

Bestalde, hil honen hasieran, Gironan, haur kategoriko txapelketa izan zen, baina IKTkoak esku hutsik bueltatu ziren.

ARAMBURU
 Alokatzeko. Saloien apartamentua Fuente Luminosaren ondoan Itsasoari begira, 2 gelak, pisuzina eta haize egokituarekin.
 Alokatzeko. Pisuak, Tolosa; Amaro eta Iurren, Alokatzeko. Garajeak, Araba etorbidean, Salgai (Tolosako Iurren), Ofizinarako lokala, Salgai (Villabona).
 Lokala dendarako edo ofizinarako.
 Salgai (Tolosa), Pisu San Bartolome plazan, 90 m², garaje ibiko aukerarekin.
 Salgai (Tolosa), Pisu Trinkele plazan, 78 m², garaje ibiko aukerarekin.
 Salgai (Tolosa), Pisu San Frantzisko, Laskorain eta Larramendin.
 Salgai (Garajeak), Tolosako Leidor azpian.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

BRONTXILLO
 Harategia Arraindegia
 Tel.: 943696823
 Santio, 4 Villabona
 Gora Santio Jaiak!

Jai zorientsuak opa dizkizue billabonatar guztiei!
MAPFRE
 ASEGURAMOS SU CALIDAD DE VIDA
 berria, 15 • Villabona
 Telf.: 943 69 22 19

hitza
 Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN praktikak egin nahi?
 Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioan lizentziaturiko Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleei zuzendua
Urritik abendura aritzeko lanaldi erdi
 Curriculum-a bidali helbide hauetara, irailaren 13a baino lehen:
 Araba etorbidea, 5. atzea • 20400 TOLOSA
 tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ EUSKARA

Egungo euskalduntze taldeak mantenduko dituzte bi udalek

Ikasturtean aritu diren lau taldeetako batean 3 ikaslek soilik dute segitzeko asmoa

ERREDAKZIOA

Villabonako eta Zizurkilgo udalek pasa berri den ikasturtean aritu diren lau euskalduntze taldeak mantentzeko konpromisoa hartu dute. Talde hauek batean hiru ikasleek soilik agertu dute datorren ikasturtean jarraitzeko asmoa, eta horregatik taldearen etorkizuna arriskuan zegoen. Bi udalek hartu duten erabakiaren arabera, «egoera txarrean ere, 3 ikasleekin geratu den talde hori ez bada gehiago osatzen, udalek talde horren ardura hartuko lukete bere

gain eta 2006-2007 ikasturtean talde horrek aurrera egingo duela ziurtatu, argi utziz konpromisoa datorren ikasturterako bakarrik dela, agintaldi honek irauten duen bitartekoa, alegia».

2005-2006 ikasturtean, Villabonako eta Zizurkilgo udalek elkarlanari ekin zioten euskalduntze-alfabetatzeko taldeak bertan sortzeko. Hala, lau euskalduntze talde aritu dira AEKren eskutik 2005-2006 ikasturtean Villabonan eta Zizurkilgoan (guztira, 42 ikasle hasi ziren), 1. urratetik 5. urratsera artekoak, hain zuzen. Arris-

kuan dagoen taldea 4. urratsekoa da, 2004-2005 ikasturtean hasitakoa. 3 ikasle izatea talde batean «HABEK ezarritako ratioren oso azpitik dago», diote udalek helarazitako oharrean, «eta beraz, talde horretan ikasle gehiagok izena ez ematekotan, taldea aurrera ateratzearen kostu ekonomikoa oso handia litzateke hain ikasle kopuru urrirako».

Egoera «kezagarria da, eta halaxe adierazi diote euskalduntze taldeetako ikasleek Villabonako eta Zizurkilgo udalekiko ordezkariak 2006ko maiatzean eta ekainean egindako

zenbait bileratan». Bilera horien ondorioz, bi udalek euskara zinegotziak HABEko zuzendariarekin bildu dira egoeraren berri emateko. Bertan hitz egindakoaren berri emateko beste bilera egin zen, euskara ikasteko dauden bideak eta hobari ekonomikoak azalduz (autoikaskuntza, azterketak gainditzen dituztenei emango zaizkien laguntza ekonomikoak, epe ertainerako zein epe luzearako neurriak...).

Taldeak mantentzearen konpromisoaz gain, «guztiaren aurrean eta egoerak bultzatuta», Villabonako zein Zizurkilgo

udalek eta 2005-2006 ikasturteko euskalduntze taldeetako ikasleek konpromisoa hartu dute ahalagin guztia egiteko bi aldeetatik irailan egingo den matrikulazio garaian herritarrek euskara ikasteko izena eman dezaten. Udalen aldetik, publizitate egokia eginez —diptikoak buzoneatuz, ikastetxeetako haurren bitartez informazioa zabalduz, publizitate zuzena tokiko hedabideetan eginez...—, eta euskara ikaslearen aldetik, beren taldeak osatzeko ikasle berriak aurkituz.

Villabonako Euskaltegia jada itxita, 2004-2005 ikasturtean Villabonako Udalak ahalaginak egin zituen euskara ikasteko taldeak bertan osatzeko. Ahalaginen ondorioz, talde bat sortu zen Villabonan. Talde horren ardura Andoaingo AEK-k hartu zuen irakasle bat jarri. Ikasturte honetan eta datorrenari begira ere bi udalak elkarlanean aritu dira euskara ikastearen inguruan.

VILLABONA ▶ SANTIO JAIK



Bazkalostean txarangaren animazioa izan zuten koadrilek. I. GARCIA

Etxe-Ondon eta Txerminen egin dute koadrilek urteroko bazkaria

Gaur, ekitaldi nagusienetakoa jubilatuen bazkaria izango da; Euskal Jaia eta emakumeen parte-hartzea sustatzeko jolasak ere izango dira

I. GARCIA

Santio jaiak aurrera doaz eta atzo Koadrilen Eguna izan zen. Eguraldi nahasia izan zen atzokoan, eta horregatik ere nahasmen pixkat izan zen koadrilen bazkariaren unean eta azkenean Txerminen eta Etxe-Ondon egin zuten hitzordua. Urtero

bezala, jende ugari bildu zen, koadrila bakoitza bere blusarekin jantzita.

Gaurko ere animazioa ez da faltako. Jubilatuen Eguna ospatuko dute, eta Txerminen bazkaria egingo dute. Euskal Jaian ere giro bikaina izango da, zikero afarirako 350 lagunek eman baitute izena. Ekitaldia

18:30ean hasiko da, sagardo eta pintxo dastaketarekin. Ondoren, 19:00etan, lehenengo erromeria saioa hasiko da Astiazaran anaiak eta Juan Mari Beltranekin. Zikero jatea izango da hurrengoa eta amaitzeko, gauerdian Tapia eta Leturiarekin erromeria. Euskal Jaieren aurretik, emakumeen parte-hartzea sustatzeko herri jolasak egingo dituzte. Aurreko urtean izan zen lehenengo aldia, eta aurrean ere antolatuko dute. Guztira, lau talde elkartzeko dira 17:00etan plazan, eguraldi ona egiten badu, edo kiroldegian, euriak azaldu nahi badu.

GOIATZ MARGOAK OROKORREAN
- INDUSTRIALA - FATXADAK -
- FATXADAK ERABERRITZEKO - HARRIA GARBITZEKO...
Errota kalea, 6 - 2.ezk • BILLABONA
Tel.: 943 69 31 01 • faxa: 943 69 31 01 • 609 14 37 13

Aranburu ARDOTEGIA
ARDOAK • SAGARDOA • KONTSERBAK • LIKOREAK, etab.
Etxerainoko Zerbitzua
Santio kalea, 4
VILLABONA • Tel. 943 69 13 24
Jai zoriotsuak opa dizkizuet!!

Villabonako jaietan ere zuekin!

VIKER 943 69 40 01 Erniobera, 19

MAXOLA TABERNA Erniobera, 4 943 69 05 91

Rainbow Nagusia 46

JOE BAR 943 69 31 54 Anxin, 1

IRY ALDETA EDARITEGIA Berria, 15 943 69 09 41

SHEPHERDS Berria, 25

PILOTA ▶

Aurrera-Saiazen denboraldi «ona»

Aurrera-Saiaz pilota eskolak denboraldia merezi bezala ospatu du, datorren denboraldia buruan izanik

NEREA URBIZU

Aurrera-Saiaz pilota eskolako partaide guztiak afari eder batekin bukatu zuten denboraldia. Aburuz sagardotegian egon ziren lehengo asteko ostiralean, han aurten «denboraldi onean» lortutakoak eta lortu gabekoak —baldin badira— gogoratzen. Hantxe izan ziren Jokin Argote eta Jabi Oteiza ere, Aurrera-Saiaz eskolarekin izan duten harremanarengatik.

Hainbat txapelketatan hartu du parte Tolosako eta Bidegoiango pilota eskolak. Hasteko, Gipuzkoako Txapelketan. Lehiaketa horretan 11 talde aurkeztu zituzten, bai binaka eta baita banaka jokatzeko. Horietatik, 5 finalera pasatu ziren. Jokatuetatik, aldiz, 2 talde txapeldun atera ziren, eta 4 azpitxapeldun.

Gipuzkoako Txapelketan lortutako emaitzekin Euskadiko Txapelketan parte hartu zuten; izan ere, probintzia bakoitzeko azpitxapelduna eta txapelduna pasatzen dira horretara. Honean, 5 talde, hortaz, Finalerdietara 2 talde iritsi ziren, eta bat txapeldun izan zen.

Pilotari guztien artean 4 pilotarik Gipuzkoa eta Euskadiko selekzioarekin ibiltzeko aukeratuak izan ziren.

Bi talde bigarren mailatik lehengora igo egin dira, finalean Aurrera-Saiazeko bi talde izan zirelako.

2005-2006 denboraldian 44 pilotari federatu izan dira, eta eskola artekoak, aldiz, 20.

Aurrera-Saiaz Pilota Eskolan orain profesionalekin batera jokatzeko ikusiko ditugun bi pilotari daude. Jabi Oteiza zauraztarra ekainean ikusi ahal izan genuen telebistan, Olaizo-

la II. arekin batera. Aurrera-Saiazen ibili da azken hiru urteetan Oteiza. Abuztuaren, aldiz, Mikel Beloso tolosarrak debutatu du.

Hurrengo urteari begira

2006-2007. denboraldian, 40 federatu izango dituzte, eta 20 eskolarrak. Gipuzkoako Txapelketan 12 talde ibiliko dira. Nagusien mailan 3 talde lehengo mailan izango dira, eta bigarren mailan, aldiz, bat.

Aurrekontuari begira, aurtengoaren antzekoa beharko dutela espero dute, 6.200 euro ingurukoa, alegia.

Leitzako Plazako Txapelketa

Bestalde, Leitzako II. Plazako Eskuz Banakako Pilota Txapelketan finalerdiak 19:00etan gaur jokatzekoak dira.

Bestalde, hauek dira aste honetan zehar jokatu diren final-laurdenetako emaitzak: Gartzia 22, Olano 12; Bengoetxea 22, Telletxea 20; I. Alduntzin 22, O. Alduntzin 21; Iriarte 22, Al-daia 8.

Beraz, finalerdietan Gartzia Bengoetxearekin lehiatuko da, eta I. Alduntzin Iriarterekin.



Aurrera-Saiaz Pilota Eskolako pilotari gehientxuenak, ordezkariekin batera. N. URBIZU



Pilota Eskolak sagardotegian eman zion amaiera denboraldiari. HITZA

ONDO PASA JAIAK!

LARREA

okindegia

- gozotegia
- gosariak
- kafe dastaketa eta salmenta

LARREA auzoa, 8A • Tel.: 943 69 11 05 • BILLABONA

EIZMENDI

ARMATEGIA • KIROLDENDA

- Kirol gaiak konpontzeko lantegia
- Aukera handia eskopeta eta kartutxotan

ONDO PASA JALETAN!

Berria, 19 • Billabona • Tel.: 943 69 26 23 • Faxa: 943 69 30 44

Lanku

Altzo

Berri Saioa

Frontoian uztailak 30 22:30etan

Andoni Egaitza
Mikel Lizarbe
Olaio Berriz
Igor Etxebarria
Aitor Bermejo
Jesus Mari Etxe

EUSKAL JAIA

BILLABONA 2006

Uztailak 29 Larunbata

18:00etan Sagardo dastaketa jironean laguntzarekin
19:00etan ERROMERIA, Antziazaren Antxiak & Juan Mari Beltran
21:00etan Atari herrikola plazaan: Zikino Juna
22:00etan ERROMERIA, Tappe eta Leturte

Garalko euskal jantziekin parte hartzera animatzen zaibuztegu
Zikino jantzerako txartelak saigai ondoko lekuetan: 20€

JAIK ▶

Badatoz herriko jaiak

Atzo hasi zituzten jaiak Altzon, eta asteartera arte festa giroa nagusituko da bertan; Areson, Adunan, Zizurkilen, Orendainen, Ikaztegieta, Gaztelun eta Albizturren egun gutxi barru hasiko dira

ERREDAKZIOA

Altzon —argazkian— atzo ekin zieten jaiak, eta asteartera arte, hilaren 1a bitarte, iraungo du festak bertan. Areso, Aduna, Zizurkil Goia, Orendain, Ikaztegieta, Gaztelu eta Albizturren, esaterako, pixka bat itxaron beharko dute oraindik festa giroan murgiltzeko. Hauek dira herri horietan prestatu dituzten egitarauak:

ARESO

ABUZTUAK 14, ASTELEHENA FESTA BEZPERA

12:00. Etxafuegoa botako da pestei hasiera emanez.

Ondoren. Kalejira herrian zehar, herriko trikitilari eta txistulariekin. Baserrietan eskea.

18:30. Paella Txapelketa.

20:30. Herri aparie.

23:30. XVI. Mus Txapelketa herrikoia.

00:00. Dantzaldia trikitilarietara.

ABUZTUAK 15, ASTEARTEA AMA BIRJINAREN EGUNA

09:30. Diana herriko txistulariekin.

11:00. Meza Nagusia.

Ondoren. Ohiko hamaiketako eskainiko du Udalak, plazan.

12:00. Herriko dantzarien emanaldia.

13:00. Pilota partidak: Mikel Olazabal, Unai Onsalo, Mikel Razkin eta Mikel Iriarte.

18:30. Herri kirolak. I. Joseba Olazabal Sokatira Txapelketa (polean) eta beste herri kirol erakustaldi desberdinak.

20:00 eta 00:00. Dantzaldia Jaione eta Jonekin.

ABUZTUAK 16, ASTEAZKENA UMEEN EGUNA

09:30. Diana herriko trikitilarietara.

11:00. Puzgarriak eta jokoak umeentzako plazan.

13:00. Herriko gaztetxoaren pilota partidak.

16:00. Plater tiraketa herrikoia Usoa elkarteak antolatuta.



Altzoko jaiak hasi ziren atzo. Irudian, gaztetxoaren dantza saioa. N. URBIZU

18:00. Umeentzako joko zaharrik, plazan.

19:00. Pailazoak, Patxin eta Potxin.

20:00. Dantzaldia plazan, Imuntzo eta Belokirekin.

21:30. Herri aparie plazan, Guraso Elkarteak antolatuta.

00:00. Dantzaldia plazan, Imuntzo eta Belokirekin.

ABUZTUAK 17, OSTEGUNA

09:30. Diana herriko txistulariekin.

12:00. Jinkana berezi herrikoia.

13:00. Nesken arteko pala partida.

18:30. Aizkolariak: Olasagasti-Rekondo eta Arrospide-Otaegi

Ondoren. Aresoko *Ingurutxo*.

20:00. Dantzaldia plazan, Laiotz taldearen eskutik.

00:00. Dantzaldia Laiotz taldearekin.

ABUZTUAK 18, OSTIRALA

09:30. Diana trikitilarietara.

10:30. Gosaria plazan herrian eskean ibiliko direnentzat. Goizean Aresoko txekorra erreko dute plazan.

14:00. Herri bazkaria Pake

Toki eta Larrea elkarteek antolatuta, plazan, bertsolariek lagunduta.

18:00. Lau t'erdiko pilota partida bertsolariekin: Olazabal Onsaloren aurka.

19:00. III. Sagardo dastaketa, txistorra eta sardina erreekin.

20:30. Kapoeira erakustaldia.

00:00. Dantzaldia Abibarekin.

OHARRAK

▶ Buruhandiak, egunero iluntze guztietan, eta goxokiak.

ADUNA

ABUZTUAK 12, LARUNBATA

16:00. Transernio Esku-pilota Txapelketa

19:00. Triki poteoa.

20:00. Txupinazoa.

20:30. Herri afaria.

Ondoren. Dantzaldia Etxabe Anaiak taldearekin.

ABUZTUAK 13, IGANDEA

10:45. Herri krosa.

12:00. Sagardo dastaketa.

14:00. Txekor jatea.

18:00. Toka herrikoia.

21:00. Txekor jateko afaria.

Ondoren. Laiotz taldea.

ABUZTUAK 14, ASTELEHENA

05:30. Txokolatada.

06:00. Oilasko biltzaileen irteera.

11:30. Bizikleta-jinkana.

12:30. Oilasko-jokoa.

Ondoren. Dantza-soka eta umeen bazkaria elkartearen.

16:30. Puzgarriak eta ume jolasak.

20:30. Oilasko biltzaileen afaria.

22:30. Bertsolariek: Jexus Mari Irazu, Unai Elortza, Estitxu Arozeta eta Xabier Silveira.

Ondoren. Senegaleko Kora taldearen ikuskizuna, Refractorios Kelsen-en laguntzarekin.

ABUZTUAK 15, ASTEARTEA

07:00. Diana.

11:00. Meza nagusia.

12:00. Umeen dantza.

12:30. Axeri dantza.

18:00. Herri kirolak herriko gazteen eskutik.

22:00. Esku-pilota partidak.

Ondoren. DJ Bull.

ABUZTUAK 16, ASTEAZKENA

13:00. Argazki eta marrazki sarien banaketa.

14:00. Koadrilen eta umeen bazkaria.

Ondoren. Txaranga.

ABUZTUAK 13, IGANDEA

11:15. Meza Nagusia.

Ondoren. Herritarren arteko pilota partidak.

17:30. Zaldi Lasterketa eta tartean Asto karrera.

23:00. Arandia Anaiekin erromeria.

Tartean. Basurde harrapaketa.

ABUZTUAK 14, ASTELEHENA

12:00. Toka Txapelketa herrikoen artean.

16:00. Ume jolasak.

20:30. Meza eta Agur Erregiña herriko agintariekin.

23:00. Bertso jaialdia: Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano, Maialen Lujanbio eta Amets Arzalluz.

Ondoren. Etxabe anaiak.

ABUZTUAK 15, ASTEARTEA

Goizean. Albizturko txistulariekin kalejira.

11:15. Meza Nagusia herriko agintariekin.

Ondoren. Pilota partidak: Telleria-Telletxea eta NARBARTEGALARRAGA. Lau t'erdian: Renobales Olaetxearen aurka.

18:30. Herri kirolak herriko gazteen artean: aizkolariak, trontzalariak, txingak, korrikariak, lokotx biltzaileak... HERRI-JASOTZEN Aimar Irigoien eta Hodei Iruretagoiena *Izeta IV.a*. Landatarrek alaituko dute giroa.

23:00. Saioa eta Lutxurdixo trikitilarien erromeria.

ABUZTUAK 16, ASTEAZKENA

16:30. Trikipoteoa herriko trikitilari gazteekin eta koadrilen arteko jokuak.

19:30. Sagardo eta Patata Tortilla Txapelketa.

23:00. Ansorregi eta Larrañaga trikitilarietara erromeria festei amaiera emanez.

IKAZTEGIETA

ABUZTUAK 12, LARUNBATA

PRESO ETA IHESLARIEN ALDEKO EGUNA

12:00. Preso ohi baten ahotik espetxeetako egoeraz hitzaldia.

14:00. Bazkaria eskualdeko sagardotegietako sagardoarekin eta bertsolariekin.

18:00. Herri kirolak, herriko hainbat koadrila desberdinen artean.

19:00. Prozesurako oinarri demokratikoak aldarrikatzeko konzentrazioa.

iragarki laburrak ▶

LAN HEZKUNTZA

Osakidetza. Lanpostuak betetzeko jendea behar da: zaindariak, administrari laguntzaileak, sukalde laguntzaileak, gidariak, laborategiko laguntzaileak. Berehalako deialdia: 943 313782.

Diputazioak. Diputazioak sukaldari laguntzaileak eta zaintzaileak behar ditu. 943 313782.

Laborategi teknikariak. Laborategi teknikariak diputaziorako plaza libreak. 943 313782.

Liburutegi laguntzaileak behar dira

zenbait udalbetetan. 943 313782.

Administrari laguntzaileak. Anoeta, Beasain, Bergara, Soralue, Mutriku, Zizurkil, Mendaro...

udalbezetan administrari laguntzaileak behar dira. 943 313782.

Peoiak, garbitzaileak, lorezainak behar dituzte. Bergaran, Hernanin eta Errenterian. Informa zaitze: 943 313782.

Haur zaintzaileak, hezitzaileak. Eskola publikoetarako plaza libreak. 943 313782.

Peoiak. Udalbezetan postu fijoak betetzeko. 1200 euro/hileko. Arratsaldeak libre. 943 313782.

Gidariak. Plaza libreak betetzeko behar dira. Doaneko informazioa. 943 313782.

23:00. Kontzertua Nuke, SA eta talde sorpresa.

GAZTELU ABUZTUAK 13, IGANDEA HAUREN EGUNA

19:00. Txupinazoa.
19:15. Tortila Patata Lehiaketa herriko plazan.

Ondoren. Afari-merienda egindako tortilekin, eta jarreraian Urko Merayoren kontzertua.

ABUZTUAK 14, ASTELEHENA ANDRA MARI EGUNA

11:00. Marrazki Lehiaketa.
13:00. Haurrentzat bazkaria herriko elkartean.
16:00. Haur jolasak, Saharako haurrekin.
18:00. Txokolatada.
21:00. Herri afaria, herriko ostatuan.

Ondoren. DJ Bull-ekin dantzaldia, goizalderarte.

ABUZTUAK 15, ASTEARTEA 09:00. Diana, herriko txistulari-ekin.

10:30. Meza Nagusia.
Ondoren. Hamaiketako herriko ostatuan.
12:00. Toka Txapelketa eta txakolin dastaketa.
18:00. Dantzaldia, Alurr dantza taldearen eskutik.
19:00. Segalari berrientzat txapelketa nazioarteko erara. Txapelketa ofizialetan inoiz parte hartu ez duten neska-mutilentzat izango da deialdi hauxe.

Ondoren. Olarte anaiekin dantzaldia.

ORENDAIN ABUZTUAK 13, IGANDEA GAZTETXOEN EGUNA

16:30. Ume jolasak herriko plazan
Ondoren. Kalejira.
18:30. Askaria.
19:00. Pottokak.
20:00. Sardina erreka eta txis-torra, herriko plazan.

ABUZTUAK 14, ASTELEHENA AMA BIRJIN BEZPERA

21:00. Buelta kanpaiak eta suziriak.
21:15. Betiko ohiturari jarraituz, kostilla jana herriko plazan.
Ondoren. Saioa eta Alabier.

ABUZTUAK 15, ASTEARTEA ANDRE MARI EGUNA

10:00. Suziriak eta buelta kanpaiak.
11:00. Meza Nagusia Andre Mari zerutuaren elizan.
12:00. Herriko aurren dantza emanaldia
12:30. Txakolina dastaketa.
13:00. IV. Toka Txapelketaren lehen eguneko saioa.
18:00. Orendaingo III. Trikitilari gaztetxo txapelketa.
19:30. Agurtzane Elustondo

eta Jon Elustondo trikitilarien saioa.

23:00. Eskuz binakako pilota partidu profesionala: Mikel Goñi – Garmendia eta Oyaga - Sukia

Ondoren. Agurtzane eta Jon Elustondo trikitilarietako erro-meria goizaldera arte.

ABUZTUAK 16, ASTEAZKENA AMA BIRJIN BIGARRENA

10:00. Suziri eta buelta kanpaiak.
11:00. Meza nagusia herriko hildakoen alde.
12:00. Txirindulari lasterketak.
14:00. Herri bazkaria Eltxoak Elkartean, Sustrai Colina eta Amaia Agirre bertsolariekin eta Unsain anaiek trikitilarietako girota.

16:00. Umeentzat gaztelu puzgarriak, ohe elastikoak eta Quads motorrak.
18:30. Herrikoentzako IV. Toka Txapelketaren azken saioa.
20:30. Orendaingo Patata Tortilla Labeldunaren Lehiaketa.

Ondoren. Herri afaria.
22:30. Haitzama taldearekin dantzaldia goizaldera arte.

00:00. Eltxoak elkartuko dira harriari buelta emateko.
03:00. Baratzuri-zopa Eltxoak elkartean.

ABUZTUAK 19, LARUNBATA GAZTE EGUNA

17:00. Txupinazoa herriko plazan.
Ondoren. Trikipoteoa.
18:30. Orendainen eta Ibarra-aren arteko herri kirolak.

Ondoren. Trikipoteoaren jarrera-pena.

20:30. Ekitaldia.
21:00. Zikiroa. Preso eta iheslarien aldeko herri afaria Goierriko triki-bertsolariekin alaituta.

Ondoren. DJ Bull-en emanaldia goizalderarte.

ZIZURKIL GOIA ABUZTUAK 11, OSTIRALA

23:00. Urko Menaia abeslariaren emanaldia.
ABUZTUAK 12, LARUNBATA 07:00. Oilasko Biltzea.

13:00. Festen hasiera. Txapela Eguneke txapelduna izan den Pantxikaneke Joxe Mari Mendizabalek piztuko du suziria.
Ondoren. Oilasko Jokoaren festa eta dantzaldia.
16:00-20:00. Zezen mekanikoa helduentzat eta puzgarriak umeentzat.
19:00. Katerik gabeko bizikleta jaitsiera Iruñatik plazara.
21:00. Herri afaria.
00:00. Laiotz dantza taldea.

ABUZTUAK 13, IGANDEA

12:00. Herri kirolak udaletxe ondoko belazeetan. Tartean, euskal selekzioen aldeko ekitaldia, ESAITen eskutik.

17:00-18:30. Herri kirolak umeentzat.

18:30. Zizurkilgo II. Trikitixa Txapelketa.

Ondoren. Lierni eta Alaitz.
23:00. IV. Pilota Txapelketaren finala Zimiterioan.
Ondoren. Trikitio taldea.

ABUZTUAK 14, ASTELEHENA UMEEN EGUNA

12:00. Kroza, buruhandiak eta jolasak.
14:00. Bazkaria herriko umeentzat, Intxaur pilotalekuan.
15:30-19:30. Ludoteka, Jungla puzgarriak eta karting-a.
16:00. XVII. Mus Txapelketa zentroan. Izen-ematea: 12 euro.

Preso eta errefuxiatuen gaua 00:00. Kontzertuak dohainik: EH Sukarra, The Solano's eta Irats trikitixa talde nafarra.

ABUZTUAK 15, ASTEARTEA AMA BIRJINAREN EGUNA

Meza Nagusia, eta ondoren, sargardo probaketa plazan.
13:30. Lur Lan elkartearen produktuen dastatzea.
18:00. Zizurkilgo XV. Auto Kroza, Totto Sari Nagusia. Zizurkilgo dantza taldearekin.

21:00. Jexux Mari Irazu, Sustrai Colina, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus.
Ondoren. Izotz taldea.

ABUZTUAK 16, ASTEAZKENA BASERRITARREN EGUNA

12:00. Herri kirolak. Leheneik, harri-jasotzailea: Haimar Irigoien. Aizkolariak: Joseba Otargi eta Arkaitz Inziarte, Joxe Ugarteburu eta Iñaki Azurmendi.
14:30. Jubilatuen eta herri kirolarien bazkaria Plazaetxeber-rrin.
18:00. Idi-probak Plazaberrin.
Ondoren. Barrikotea.
21:00. Oilasko afari herrikoa.
00:00. Gaupasa Trakets talde-arekin. Atsedendaldian, Zizurkilgo XIII. Toka Txapelketa jokatuko dute, Zimiterioan.

ZUZENKETA ▶

Atzo argitaratu zen Ibarako festetako egitaraua ez da zuzena. Barkamenak norbait kaltetuta sentitu bada. Jakin, ordea, herriko festetako egitarau osoa, eta zuzena, sanbarbolometan banatuko dela gehigarri berezian eta, bestalde, gainerako herrietako festen egitarauetara batera, www.tolosaldekohitza.info-n eskuragarri egon dena.

ANOETA ▶ AISIA



Atsedenekuko osagaiak bizikleta itxuran lotuta daude. JAIONE ASTIBIA

Elutsa atsedenekua prest dago erabiltzeko

Mahaiak, eserlekuak, burruntzia, jostailuak eta iturria jarri dituzte, bizikletaren itxuran



Atsedenekuaren irekieran, Agurra dantzatzeko unea. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Atzo inauguratu zuten Elutsa atsedenekua Anoetan. Herriko udal ordezkariak eta Landa Ingurunearen Garapenerako diputatua bertan zirela, ekitalditxo batekin, irekita gelditu zen aisialdirako gune berria.

Ur-biltegi zaharraren lekuan egin dute aisirako gunea, berriaren ondoan. Bi altueratan kokatuta, 500 metro koadroko azalerako eremu-txoan, 3 mahai, beste 3 eserleku, burruntzi bat eta iturri bat jarri dituzte, haurrentzat bi jostailurekin osatuta.

Berezitasuna, ordea, osagai hauen antolamenduak du kasu honetan; izan ere, tresna eta altzari horiek guztiek bizikleta eta txirindulariaren itxuran egindako egurrezko



Jostailuak estreinatuz. J. A.

pasabidea dute lokarri, Abraham Olano herriko txirindulariaren omenez. Atsedengunearen goikaldetik ederki nabari da silueta oso-oso. Diseinua Xabier Salvador teknikariak egin du.

Elutsako atsedenekuan 23.000 euro inbertitu dituzte.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 56 56 95
tolosaldean@tolosaldekohitza.info





AGENDA ▶

ANTZERKIA

Aduna. Trainspotting.
 Juanlu Escuderoren eskutik. Bihar, 18:30ean, Asvinenean.

DEIALDIAK

Bidegoian. Suak hartutako Eztiola baserrikoei laguntza emateko jaialdia, 19:00etatik aurrera: herri kirolak, bertsolariak, afaria...

Ikaztegieta. Festetako herri afarirako (abuztuak 10) txartelak eros daitezke Toki Alain, abuztuaren 4a arte.

Leitza. Atekabeltzen irekiera festa: 12:30ean, kalejira plazatik; ondoren, harrera Gaztebean; 13:30ean, bazkaria; 17:30ean, Olinpiadak; 20:00etan, poteoa; ondoren, luntxa; 23:00etan, kontzertua.

Tolosa. Juan Mari Jauregi ETAk hildako politikariari omenaldia. 13:00etan, Fronton kafetegiaren kanpoaldean.

JAIK

Aitzo. 18:00etan, jaien hasiera buruhandi eta txistulariekin; ondoren, Artea eta Lurr dantza taldeko gaztekoen emanaldia; 20:30ean, zikiro jatea; 00:00etan, Kupela taldea.

Villabona. Jubilatuen Eguna: 09:00etan, plater tiraketa Onddon, Loatzo tiro elkartearen eskutik; 10:00etan, sokamuturra; 11:00etan, erraldioak, buruhandiak eta Tolosako dultzaineroak; ordu berean, eskularen erakusketa; 12:00etan, meza nagusia; ordu berean, *Bolaluma* haur jaialdia; 14:00etan, bazkaria; 17:00etan, emakumeen parte-hartzea sustatzeko herri jolasak; 18:30etik 00:00etara, Euskal Jaia: sagardo eta pintxo dastaketa, erromeriak, zikiro jatea...

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Tolosa. Azpiroz, M. L. Amaroz zuoza, 9. 943 67 51 18.
 Leitza. Gimeno, A. Elbarren 32. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Motxila ilusioz beterik

TOLOSALDEA ▶ Bustita eta nekatuta baina irribarretsu iritsi ziren atzo 40 bat erromes Tolosara, San Adriango tunelaren bigarren jardunaldiaren bukaerara



Unai Iparragirre billabonatarra, erromesik gazteena, eta bere amona Maria Jose Labourdique. L. MONTES



Erromes taldea eta Josemi Gomez Elozegi zinegotzia (makurtuta), Usabalera abiatu aurretik. L. MONTES

LEIRE MONTES

Bustita eta nekatuta, baina irribarrea ahoan eta motxila ilusioz eta bizi-penez beterik. Halaxe iritsi ziren atzo 40 bat erromes Tolosara, Hernanin hasitako etaparen bukaerara. San Adriango tunelaren bideko bigarren jardunaldia zuten atzokoak; izan ere, Arabako, Gipuzkoako eta Errioxako (Espainia) Donejakue bideko Lagunen elkarteek antolatutako lehen erromesaldian ari dira, «barneko euskal bidea suspertzeko».

Unai Iparragirre billabonatarra da pelegriño horietako bat. Taldeko gazteena, gainera (10 urte ditu). Amona Maria Jose Labourdiquek proposatuta onartu zuen erronka. «Amonak esan zidan ea bidea egin nahi nuen, eta animatu egin nintzen. Herriko festak galdu egiten ditudala? Ez du inporta, urtero izaten dira eta!», zioen, irribarretsu, etapa amaieran. Pisu handiko motxila gainean eta oinetakoak bustita izan arren, ez zen kezkatzen. «Pixka bat nekatuta nago, bai, baina...», zioen, irribarrea galdu gabe. Amonak badu eskarmentua Donejakue bidean, eta hark emandako aholkuei adiarazi jarraitzen die gaztekoak.

Udalak harrera egin zien erromesei, eta opariak trukatzeko aukera izan zuten: Udalak Tolosaren zigilua zuen koadro bat eta papergaineko bat oparitu zien, eta haiengandik plaka bat jaso zuen. «Ongietorria eman diegu, eta maiatzean Donejakuearen inguruko jardunaldiekin hasitako bideari jarraitzeko konpromisoa berretsi. Haiek Tolosan erromesentzat aterpea jartzea eskatu digute behin eta berriro», azaldu dute udal ordezkariak.

Ongietorria amaituta, Usabal kiroldegira joan ziren pelegriñoak, han hartu baitzuten ostatu. Arratsaldean herria bisitatu zuten, Tolosaldea Tourrekin. Eta gauean Juan Ignacio Astiazaranen Usabal sagardotegiak eskainitako afarian elkartu ziren guztiak, indarrak berritze-ko. Zeruari begira oheratu ziren, gaur eguraldi hobea egingo zuten itxaropenarekin.

AGURRAK ▶



ZORIONAK
 Maxi.
 Nati eta Ramonen partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...